

• OARSO BIDASOKO •

# HITZA

**OSTIRALA, 2023KO  
EKAINAREN 2A  
KILOMETROAK.EUS**

Testuak eta argazkiak:  
Kilometroak 2023  
Azaleko argazkia: Dani Novas



erriola

# kilometroak

2023 ORERETA-ERRETERIA

# EUSKARA MAREAN GORA! ERRIOLA!



▶ **1963an  
sortutako ametsa,  
kilometrotik  
kilometrora  
hazten // 4-7**



▶ **Aurten 'Erriola',  
baina 1984an eta  
1999an ere izan  
ziren kantak eta  
letra egileak // 8-11**





# ERRIOLA GARA

**Iola zahar batean abiatzen den ipuina izan zen hastapena, erriolaren aurkezpena, erriolan gora eta behera dabilen txalupa bat, herriko zubietatik igaroz, eta egun, Orereta Ikastolako egoitzak bilakatu diren, baina garaian herriko paisaia protagonismo handia izan zuten fabrikak zeharkatuz.**

Erriola itsasoratu zen 2022ko azaroaren 4an. Egungo ikasle eta irakasleekin batera, baita ikasle ohi, familia eta langileekin ere. Ikastolaren sorreran parte hartu zutenen eta ikasle gazteenen arteko transmisioa irudikatuz; eskertza. Eta herriko hainbat eragilerekin ere, eskuz

esku. Herritik sortua eta herriarentzat lanean ari da Orereta Ikastola, euskartik eta euskal kultura ardatz.

1963an, garai politiko eta sozial zailetan, euskaraz eta euskal kulturaren oinarritutako hezkuntzaren aldeko apustua egin zuten herriko familia batzuek. 1973an hasierako ametsa errealitate

bihurtzen ari zela ikusirik, Añabitarteko baserriaren inguruko lurra erosi zituzten. Urteekin ikastolaren ikur bihurtu da Añabitate, komunitatearen topagune. 60 urte beteko ditu Orereta Ikastolak 2023an, eta bide horretan lanean ari-

▶ **Nortasuna du erriok Errenteria-Oreretan, herriaren erdigunetik pasatzen delako**

tu diren guztiei eskertza egiteko eta komunitatea sendotzeko baliatuko da aukera hau, baserriaren inguruan proiektu bat eginez.

Nortasuna du erriok Orereta-Errenterian. Herriaren erdigunetik pasatzen delako, bizimoduaren erdigunean egon delako, erdiguneak sortu dituelako. Erriotik, herri. Horregatik, herrian euskara eta euskal kultura indartzeko proiektuetara bideratu nahi da Kilometroak festak eskainiko duen aukera.

Zubiak elementu inportanteak dira Orereta-Errenteria, baita ikastoletan ere. Zubiak mundura, zubiak aniztasunera, zubiak iraganera, eta etorkizunera. Euskal Herriko beste ikastolekin ere badu zubirik eraikita Oreretak, Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako ikastolekin; horiek elikatzeke ere baliatuko dute Kilometroak festa, egoera okerragoan dauden ikastola horiei elkartasuna erakutsiz.

## ERRIOA DA, EZ IBAIA

Errioren magaleko faktoria. Uraren gazi-gozaok, gorabeherak eta zubiek josten duten komunitatea.

Errioa da, ez ibaia. Itsasoaren gertutasunak fenomeno natural propio bihurtzen du. Kostalde-kostaldean ez egonagatik, mareak gora eta behera egiten du, urak bi noranzko ditu; gorabeherak izaten ditu, ez du beti aldarte bera; ur gaziak eta gezak bat egiten dute, elkar hartzen dute; bi urertz batzen ditu; zubiak sortzen ditu; iolak ditu garraibide, belauldiz belauldi herentzian jasotzen eta izena mantentzen duten egurrezko txalupak; faktorien kokaleku da, sormenaren eta jardueren hazi. Herri baten isla garbia. ●

**KABALA**  
etxe - animalientzako pentsu eta osagarriak

943 53 57 51 / 605 76 52 14  
Erdiko kalea 16. Errenteria. kabaladenda@gmail.com

ETXERAKO ZERBITZUA  
AUTOZERBITZU GARBIAGAILUA  
ILEAPAINDEGIA ALPERREKO HISTORIOA

**IPARBUS**  
943 49 18 01  
www.iparbus.com

# (H)ABIATUZ



Besteren artean, honako lantaldetik atera zen Kilometroak 23ren leloa.

**Iazko maiatzaren hemezortzigarrena udari kuku egiten hasia zen. Ekaitza zegoen iragarrita arratsalderako eta guk Linon aterpe hartzea erabaki genuen, habia-tzeko. Udaberriak habia egin nahi zuen Kilometroak 2023aren egoitzan, behingoz hegan has zedin.**

Puntu-puntuan agertu ginen Leire, Naroa, Garazi, Nerea, Ikastolen Elkarteko Koldo eta neroni, Iñigo. Eta geroago baina beti bezala garaiz, Aitor. Eta hitzak dantzatzeari ekin genion, nola ez; eserita. Aulki-joko hitzuna zen gurea. Zerotik hasi ginen, baina ez hutsetik: euskara-eskaintza-komunitatea ziren harilkatu beharreko kontzeptuak, hitz edo lelo barrean. Eta hitzak txirikordatu ahala,

beste hainbat hitz saretzen joan ginen zehar lerro moduan: herriari atxikitako aniztasuna, pluraltasuna, auzolana ...

«Zubia» hitza agertu zen. Eta horrekin batera, zubigintza, elkarlana, komunitatea zein beste hainbat alde lotzeko beharra... Baina zubiaren kontzeptua nahiko «xahutua» zegoenez, haren inguruko beste elementuei erreparatzeari ekin genion: ura, errioa, errekarriak...

Linoko gure gelako atzeko atea zabalik

aurkitzen zen, Xamakoerre kara ematen duen hura. Eta bizitzak oroitzen dakartza: «Amonak ibaiari erri deitzen zion», «errioa ze ahaztua daukagun»... Bilatzen genuen aterkia, hitzez hitz tantaka jariatzen hasiak ginen!

## ‘ERRIOLA’

Eta hortik, beste hitz joko batzuk eratorri ziren: herri, herri-o, erro... *Errio* hitza gero eta maizago gailentzen hasi zen, protagonista bilakatu zen arte. Asfalto eta porlanezko herrian, erriorearen uni-bertsoak eta horrek zekarren koordinada aldaketak erakarri gintuen, eta bertan errotzearekin, Euskaltzaindiaren atzizki guztiak baliatzeari ekin genion, lelo berriak guk nahi genuen hura esan zezan ... nahiz eta oraindik ere ez genekien zer zen bilatzen genuena. Eta halako batean, *-olak* egin zigun agur. *Errio* eta *-olak* batzeak, hitzari balioa eransten zion: *Erriola*. Gainera, «iola» ere barneratzen zuen hitz magikoak: aitzina, ibaian gora eta behera zebiltzan ontziak, hizkuntza eta kulturaren garraiolari, hein handi batean. Guk nahi genuena esaten hasia zen hitza edo leloa. Paretan idatzi eta ahots gora esatean, bazuen indarra eta sentimendua. *Erriola*.

Lana bideratua uztearen pozarekin, indarberrituko gintuen mokaduari ekin genion, ordu pare hartan bizitako guztia liseritu eta *Erriola* hitzak gure barruan kosk egin eta mingaina ateratzen zigularik oihartzun forman. Eta ondoren, ahalik azkarren etxera, ekaitza iristear zelako.

Erauntsia, ordea, handik aurrera etorriko zen. ●

**UDABERRIKO KANPAINA**  
**2400€**  
**Erosketa-txarteletan!!!**  
**#nikerrenerian**





# 60 URTE ETA AURRERA!


**1960ko hamarkadaren hasiera ez zen samurra izan zenbait euskal herritarrentzat, baina bazen zerbait argia eta esperantza ekarri zuena: Ikastolen mugimendua. Hori guztia hastea oso zaila izan bazen ere, pixkanaka-pixkanaka zabaltzen hasi ziren Ikastolak, eta garai hartan sortu zen Orereta Ikastola ere.**

DBHKO ZENBAIT IKASLE ETA IRAKASLEK EGINDAKO ERREPORTAJEA

## LEHEN URRATSAK

1963. urtea zen, eta toki bitxi zein berezi batean eskolak jasotzen hasi ziren Errenteriako hainbat haur; hain zuzen ere, Santa Klara kaleko pentsutokian. Bertako zenbait guraso, euskaltzale eta elizako kideri esker, finantzaketa iturriak eta bestelako laguntzak bilatzeari ekin zioten. Kezkaz josita, baina ilusioz eta indarrez hasi zuten bidea sortu berri zuten proiektu hartatik zer aterako zen jakin gabe. Argi zutena zen herriari euskarazko hezkuntza eskaini nahi ziotela.

Hasieran bederlatzi ikasle ziren arren, gutxinaka-gutxinaka gero eta gehiago izan ziren Ikastolan izena ematen zuten haurrak, eta bigarren ikasturterako 60 ziren. Horrek beste arazo bat ekarri



zuen, ez baitzegoen denentzat nahiko tokirik. Han-hemenka ibili ziren guraso zein langileak herriko hainbat txoko atontzen eta ikasgela bihurtzen: baten lokalean, bestearen garaje zaharrean...

Urteroko kontua bihurtu zen hori. Izan ere, ikasturte berriarekin batera ikasle kopuruak gora egiten zuen eta zitutuzten espazioak urriak ziren. Hortik etorri zen egoitza baten ideia; hala ere, dirua falta zuten. Orduan akzioen salmenta jarri zuten martxan. Horrekin batera, herritarrek borondatezko eskaintzak egin zizkieten Ikastolari. Formula hark funtzionatu zuen, eta Añabitarteko lurak erosteko aukera iritsi zen orduan. 100.000 metro koadroko lurra erosi zuen Añabitarten Orereta Ikastolak 1973. urtean, eta horrekin, 10 urte lehenago hasitako amets hark etxea izatea zuen azkenean. Eta eskerrak lortu zuten, urte hartan jada 630 baitziren euskarazko eskolak jasotzen zitutuztenak.

► Sortu eta hamar urtera, 1973an, jada 630 ziren Orereta Ikastolak zituen ikasleak

Urte horietan guztietan, legeak babestu gabe aritu ziren. Alabaina, halako batean iritsi zen Ikastolen legeztatze prozesua eta Orereta Ikastola horretan ere aitzindari izan zen. Horren aldeko apustu garbia egin zuen hasieratik eta herritarren, gurasoen eta bertako langileen gogoari esker, Orereta Ikastola legeztatuta egin zen 1967. urtean. Zehazki, kultur elkarte moduan erregistratu zen, aterki horrek askotariko kultur ekintzak aurrera eramateko aukera irekitzen baitzuen, tartean, eskolak euskaraz ematea.

Hasierako urte haietan Ikastolaren biziraupena bermatzeko egiten ziren ekintzak hainbat izan ziren: azokak, aforiak, kontzertuak, errifen salmentak... Lan horietan guraso zein herritarrek ibili ziren, ez baitzuten haien euskaraz bizitzeko ametsa zapuzterik nahi. Ingaruko guraso erdaldunak ere kutsatu zuten olatu hark, eta haien haurrak euskaraz hezteko hautua egiten hasi ziren. Hori dela eta, Añabitarteko eraikina

# MAITEXA

## TABAKOAK



## OPARIAK

Bizente Elizegi, 3 . Errenteria . 943 51 21 10



txiki geratu zen, eta arazo ekonomikoek hor jarraitzen zutela ikusirik, Ikastolaren Eguna ospatzen hasi ziren 1980ko hamarkadaren lehen erdian. Horrez gain, 1984. urtean Kilometroen jaia ospatu zen lehen aldiz herrian.

### **METODOLOGIA AITZINDARIA**

Garai hartako irakasle gehienak erdaldunak ziren, estatuak bidaltzen baitzuten eta bertako ikasleak, ordea, euskaldunak. Hori dela eta, ikastolen mugimenduak aurreko metodologiarekiko haustura ekarri zuen. Pedagogia berri-tzaileak ekarri zituzten bertan lanean aritu ziren hainbat irakaslek, eta materialaren sorkuntzan ere buru-belarri aritu ziren. Ikastolako beharrak aseko zituen materiala behar zen, eta etengabeko prestakuntzan eta hobekuntzan aritu ziren.

Beste berritasunetako bat Batxilergoa izan zen. Apustu handia izan zen, baina herriko zein inguruko herrietako orduko ikasleek oinarrizko ikasketak bukatuta gatzelaniaz ez jarraitzeko bide bakarra Ikastolak eskaintza hori egitea zen. Zenbait familiak kezka azaldu zuten meto-

dologiaren ganean, ez baitzegoen inolako oinarririk eta haien seme-alaben etorkizuna zalantzan ikusten baitzuten askotan. Hala ere, eta urteak pasa ondoren, ikastolek hasitako bide pedagogikoa eredu eta aitzindari izan dela aipatzen dute garaiko zenbait ikasle eta irakaslek. Hori horrela, 2006. urtean Oiartzungo Haurtzaro Ikastolarekin elkartu eta Oiartzo Batxilergo Ikastola sortu zuten.

Bestalde, haur erdaldunen beharrei erantzuteko balio izan zuen ikastolen mugimenduak, baina baita bertako ikasle euskaldunen artean euskararen erabilera sustatzeko ere. Herriaren izaera kontuan izanik, Espainiako Estatuko familia ugari iritsi ziren 1970ko hamarkadan batez ere herrira, eta horrek Ikastolako haurren izaera eta hizkuntzan aldaketa ekarri zuen. Gero eta gehiago ziren Ikastolan hastean euskara ez zekiten haurrak, baina arazo horri ere irtenbidea topatu zitzaion.

Euskaraz Bizi proiektua izan zen horren erakusleetako bat. 1991-1992 ikasturtean abiatu zen egitasmoa, eta ikasleak euskaraz egitera bultzatzeko helburua zuen, baina baita euskararen presentzia ikasgelatik at, beste esparru

**Koldo Mitxelena euskaltzale errenteriarra, 1984ko Kilometroak jaia hasteko zinta-mozte ekitaldian.**



**London**  
School of languages

*Zugandik gertu*

london-school.com  
Donostia | Oiartzun | Astigarraga | Urnieta

**HIZKUNTZ-ZENTRO  
BAT BAINO ASKOZ**

**GEHIAGO**

Ingelesa | Frantsesa



**GOZATU  
SAGARDO  
EGUNAZ**

@academia.london  
London School of Languages



**SAGASTI  
ELIZONDO**

**Esther Sagasti Orodea  
Ana Elizondo Iriarte**

Barne Diseinua

**ETXEBIZITZA NAHIZ LOKALEN  
PROIEKTU ETA LANAK**

**Santxoenea 31 . Erreterria . 679703944 . 605765316**  
[www.sagastielizondodecoracion.com](http://www.sagastielizondodecoracion.com)



eta ekintza batzuetara hedatzekoa eta zabaltzekoa ere. Hain zuzen ere, euskarak ongi pasatzeko eta gozatzeko ere baliu zuela frogatu nahi zuten.

Euskararen ezagutzak pixkanaka gora egin du azken urteetan eta Ikastolak horretan badu zeresana. Hizpro proiektua, esaterako, Ikastolaren adierazgarrietako bat da. Ikasle eleanitzak sortzeko proiektua da, hain zuzen ere. Erabilera, hala ere, kezka nagusi bat da gaur egun oraindik Ikastolan.

Ikastolak berezko metodologiaz gain, beste bereizgarri bat ere badu: Euskal Curriculuma. Etorkizuneko ikasle euskaldunak sortzeko bidean, ezinbestekoa da proiektu pedagogikoa garaira eta tokira egokituta izatea, eta azken urteetan erabiltzen den EKI proiektuak hori bermatzen du.

### ILUNETIK ARGITARAKO JAUZIA

Egindako lanari esker, guraso askoren konfiantza irabazi zuen Ikastolak ondorengo urteetan, eta ikasleentzako hezkuntza proiektu euskaldunaren alde jarraitu zuen lanean. Baina ez hori bakarrik, euskal kulturaz bete zituen garai hartan ikasgelak, baita hori herrira eramane ere. Argi ikusi zen Ikastolak herrian



Ikastolak herriko eragileekin elkarlanean antolatzen du Gau Beltza.

▶ Ikastolak, berezko metodologiaz gain, bereizgarri bat badu: Euskal Curriculuma

ere presentzia eduki behar zuela, eta herriko zenbait eragile eta elkarterekin harremanak sendotu eta horiekin elkarlanean urtean zenbait ekintza antolatzen hasi zen. Esate baterako, Olentzeroren etorrera, Inauteriak, Santa Agedako koplak...

Ikastola ez zen soilik ekintzekin iritsi herrira. Izan ere, 1990ko hamarkadaren erdialdean Haur Hezkuntzako egoitza ireki zen erdigunean. Hasiera batean, Ikastolaren asmoa egoitza bakarra izatea zen, herrian egongo zena, baina aukerarik ez da izan horretarako. Bidean izandako oztopo guztien ondoren, azkenean Ikastolak Esmalteriako lurak erosi zituen lehenik eta geroago Linoko orubea.

Urteetan haziz joan zen Ikastola eta hamarkada hartan 3-18 urte bitarteko eskaintza bazuen ere, beste pauso bat ematea pentsatu zuten garaiko ardurdunek. Lehenik, urtebeteko haurren gela ireki zuten, eta arrakasta ikusirik, 1993-1994 ikasturtean 0-3 eskaintza atondu zuten.

Bigarren Kilometroak antolatzeko urtea iritsi zen orduan. 1999ko urriaren 3an ospatu zen jaialdia, *Kilokoloreren eguna* hain zuzen ere. Bertatik ateratako irabaziak Esmalteriako lurak ordaintzeko erabili ziren.

Internetek ere aldaketak ekarri ditu

**KIRIKOKETA**  
jaiak gozau!  
Aialde, 1 Oiartzun  
943 26 07 78

PASAIA - LEZO  
**LIZEOA**  
**ERRIOLAREKIN BAT**





### Añabitarten Baso Eskola du Orereta Ikastolak. Natura ezagutu eta gozatzeko gunea da.

Ikastolara. Baliabide gutxirekin hasitako bidea erabat aldatu dela diote garaiko zenbait irakaslek. Izan ere, sekulako aldaketa metodologikoa izan da IKTak ikasketa prozesuan txertatzea.

2008. urtean Guraso Kooperatiba izendatu zuten Ikastola, eta urteen poderioz gurasoak gero eta gehiago inplikatzeko hasi dira. Modu horretan, militantziatik hasi zena profesional bihurtzea lortu zuten. Ikastolak haiei esker egiten du aurrera eta erabakiune guztietan ezinbestekoa da haien partaidetza. Gurasoak dira Ikastolaren sortzaileak eta jabeak. Hala ere, batzuetan zaila da haien inplikazioa lortzea, lan boluntarioa den horretan, batzuk ez baitaude

prest lan hori betetzeko; beste batzuek, ordea, behar den guztietan ematen dute euren onena. Egoitz Verdugo zuzendari pedagogikoaren esanetan, seme-alaben heziketan gurasoek ere parte hartzen badute, eskaintzen den hezkuntza hobea izango da.

Aipatutako guztiari gehitu behar zaio Ikastola beste eskoletatik bereizten duen Baso Eskola; Añabitarten dago kokatuta, eta ikasle guztien eskura dago, modu batera ala bestera natura ezagutu eta gozatu ahal izateko.

Ezin ahaztu berrikuntza pedagogikoan egindako aldaketek ekarri duten iraultza: Koldo Mitxelena (Esmalteria) plaza-ko eremua berritzea eta hIZAN, LHko

Hazten eta Heltzen, DBHko diziplina arteko proiektuak, denak Ikastolako Pedagogia Batzordearen ardurapean.

Ikastolak berezkoa izan du nazio ikuspegia hasiera-hasieratik, eta azken urteotan *Zubiak eraikiz* proiektuaren bitartez garatu eta sendotu da aipaturiko ikuspegia; lotura estuak ditu gure Ikastolak bai Ipar Euskal Herriko hainbat ikastolarekin, baita Berako (Nafarroa) Labiaga ikastolarekin ere.

Eta azkenik, ezin aipatu gabe utzi Orereta Ikastolaren urtemuga: 60 urte. Horrek erronka handi bat onartzea ekarri du; hain zuzen, 2023ko Kilometroak antolatzeari. Historiaren kapitulu horrek izango du isla gurean, zalantzarik gabe. ●



**Haurtzaro  
Ikastola**  
bizitzarako hezkuntza

Erriola, erriola,  
Orereta Ikastola,  
Haurtzarotik,  
"segi hola!"



[www.haurtzaroikastola.eus](http://www.haurtzaroikastola.eus)





Janus Lester taldekoak, maiatzaren 6ko '12 orduz Erriolan' jaialdian.

«Uda bete-betea eta ilusioz gainezka, lo egiteko tarte gutxirekin!»

## JOKIN PINATXO

Janus Lester Jokin Pinatxo beratarak sortu duen taldea da. Zazpi musikaririk osatzen dute eta *Ez gaitzala loak harrapatu* diskoarekin bira egiten ari dira hilabeteotan. Jon Maia Soriaren letrei musika jarri diote eta maiatzaren 6an aurkeztu zuten *Erriola* kantua, aurtengo Kilometroak jaia urtean zehar egiten ari den mugarri parte hartzaileenetakoan, *12 orduz Erriolan* izeneko egunean hain zuzen.

**'Maitasuna tabu' izan zen entzun zen lehen kantua. 100.000 entzunaldi baino gehiago izan ditu jada, eta 'DAP DAP' ere bide beretik doa. Top-ean zaudete?**

Guretzat nahiko sorpresa izan zen *Maitasuna tabu*-ren arrakasta. Nahiko talde berria ginen, eta ikustea nolako harrera izan zuen oso pozgarria izan zen. Uda eta gero ia-ia diskoarekin batera aurkeztu genuen *DAP DAP*, eta sekulako harrera izan zuen. Oso gustura gaude izaten ari garen harrerarekin, kontuan hartuta abenduan aurkeztu genuela diskoa, eta topean ez dakit, baina behintzat gogoz eta lanerako indarrarekin gabiltza.

**'Ez gaitzala loak harrapatu' da zure lehen diskoa, eta horretarako ibilbide lu-**

**zeko musikariekin bildu zara. Zeintzuk zarete taldean?**

Aurretik ezagutzen nituen lagun eta musikari batzuk batu ginen, eta pertsonalki ez, baina eszenatokietatik ezagutzen nituen beste batzuk bildu gara. Garazi Esnaola teklatuan, Javi Etxarri gitaran, Andoni Arriola eta Julen Suarez tronpetan eta tronboian, Mattin Arbelaitz baterian, eta Ane Bastida baxuan. Aurretik Mattin, Julen eta Andoni ezagutzen nituen leskararrak direlako, eta txaranga batera ginelako. Baina besteak soilik eszenatokietatik ezagutzen nituen eta horrela osatu genuen koktelera.

**Noiz eta nola abiatu zenuten Janus Lester proiektua? Nondik etorri da izena?**

2019ko urrian abiatu zen lehen kontakutua Mattinekin. Gogoz nengoen proiektu pertsonalago bat abiatzeko, eta lehen ideiak orduan hasi ziren. Gero, pandemiak harrapatu gintuen bete-betean eta nahi izan genuena baino gehiago luzatu zen taldea publiko egitearen ideia.

Abestu baino lehen saxofoia jotzen nuen, eta bazegoen saxofonista bat asko gustatzen zitzaidana, Lester Young. Iru-ditu zitzaidan polita zela niretzat hain

garrantzitsua zen pertsonaren izena mantentzea, proiektuaren izenak pertsona kutsua mantentzea nahi nuelako. Janus, aldiz, jainko erromatar bat da, eta tenpluen sarreretan egon ohi zen, beraz, sartzerakoan eta ateratzerakoan ikusten zenez, trantsizioen jainko gisa ere ezaguna da. Niretzat trantsizioa zen saxofoia jotzetik abesterako pausoa, eta beraz, Janus eta Lester elkartu nituen.

**Ahotsak protagonismo berezia du zuegan, abesti melodiko eta dantzagarriekin, eta tonalitateen jolasarekin. Hainbat estilo uztartzen dituzue eta instrumentu asko dituzue oholtzan. 'Erriola' kantuan ere hori sumatzen da.**

Beti izan naiz nahiko pertsona melodikoa eta garbi nuen abestietan melodiak izango zuela garrantzia handiena, bai nire ahotsean eta baita bandan ere. Zazpi pertsonako banda gara, eta bakoitzak izango zituen lineatan ere eman nahi nien garrantzia handia. *Erriola* abestian nabarmena da pisua melodiak duela.

**Letrak zuk sortu dituzu. Kilometroak jaiaren kantuan, ordea, Jon Maiak. Nolako izan da harekin lan egitea?**

Berezia eta polita izan da. Bada bertso-laria, letragilea, musikaria... Jonek badu abantaila hori, arlo guztietan mugitu izanak ematen dio erraztasuna letrak sortzeko. Nahiko erraza izan zen, lehen ideia bidali zidanetik abestia nahiko azkar atera zitzaidalako, eta uste dut konexio azkarra izan zela.

**Beran eman zenuten lehen kontzertua izako udan, eta orain agenda betetzen ari zaizue. Nola datorkizue sasoa?**

Diskoa atera baino lehen, aurreko udan erabaki genuen kontzertu batzuk ematea, errodaje pixka bat hartzeko, eta jendea aurkeztu ahal izateko zer zen Janus Lester, gure kantak entzun gabe izan arren. Egin genituen kontzertu batzuk, eta abendutik, diskoa atera eta gero, antzoki eta aretoetan gabiltza aurkezten. Uda badirudi nahiko bete, mugitua eta polita izango dela. Beraz, haur baten ilusioarekin eta oso kontent nago.

**'Ez gaitzala loak harrapatu' diskoaren birarekin, beraz, lotarako tarte gutxi!**

Agenda betetzen joan ahala lo egiteko tarte gutxi izango dugu, eta oxala horrela izatea. ●



# JON MAIA

## 'ERRIOLA'-REN LETRAGILEA

### **Errenteria-Orereta zuretzat plaza berezia izan da betidanik. Zergatik?**

Bai, nire bizitzaren bidea askotan gurutatu da Errenteria-Oreretakin, herri berezia da niretzat. Batetik, bertsolari bezala Xenpelar Saria nire oroimenik kuttunenetarikoa da, gaztetan bi urtez segidan irabazi nuelako, oso garrantzitsua izan zen niretzat. Gerora askotan hartu dut parte bai hemengo bertso jaialdi nagusian, baita bestelako jardueretan ere. Azpimarratuko nuke Pontikako Kabia karpapean eman nuen hitzaldia, elkarbizitzaren bueltan, oso ekitaldi sinbolikoa momentu hartan. Baita Concha Rocierarekin egindako zenbait emaldi. Bai, zalantzarik gabe harreman berezia dut herri honekin.

### **Kilometroak 23ko kantuko letran, islatzen da zuk hainbeste maite eta bultzatzen duzun elkarbizitza eta aniztasunaren aldeko aldarria.**

Euskara izanik gaia, bai, nik euskara horrela ulertzen baitut, inklusiorako ate gisa, bat egiteko tresna kohesionatzaile

gisa, elkarbizitzarako balore positibo bezala zalantzarik gabe.

### **Euskara-eskertza-komunitatea dira Kilometroak 23ren zutabeak. Letra egiterako orduan, muga horiek askatzaileak izan litezke? Lagungarri?**

Bai. Izan ere euskararena oso landutako gaia da, zer ez dugu kantatu dagoeneko euskarari buruz? Horregatik, edozein partikularitatek lagundu egiten du letrak zehazteko. Kasu honetan errioa hartu dut elementu zentralizat, eta hortik abiatu naiz balio horiek transmititzeko.

### **Zer eduki, jolas, metrika eta sonoritate mota bilatu duzu? Zer lortu nahi duzu letrarekin?**

*Erriola izanik leloa, euskararen mugitu*

*«Errioa hartu dut elementu zentralizat, eta hortik abiatu naiz balio horiek transmititzeko»*

## HITZEN ARDURA

Diru premiak behartuta hastapenean, aldarrikapen kutsuarekin, *Noiz arte honela?* lelopean antolatu zuen lehendabizikoz Kilometroak Orereta Ikastolak duela ia 40 urte. Euskararen aldeko aldarria, bizi da, bizi-bizi gara, bizirik euskara 1999ko edizioan. Eta euskararen mugimenduen metaforatzat, errioa 2023an; euskara integrazioarako, elkarbizitzarako eta herria biltzeko. Eta erri horren itsasoa, herri osoa euskaraz ikustearen ametsa.

Julian Albistur izan zen 1984ko kantuarren letragilea, Antton Kazabon 1999koa eta Jon Maia 2023koa. Kantuez, letraz eta mezuez aritu dira hirurak.

menduen metaforatzat hartu dut, nola herria biltzen duen beso bat den, eta aldi berean batzen duen zerbait. Eta erri horren itsasoa, herri osoa euskaraz ikustearen ametsa.

### **Zu itsastarra zara, asko maite duzu itsasoa. Errenteriaren asfalto eta porlanezko koordenadak erriora hurbiltzeak, zer esaten dizu?**

Errenteriak itsasora hurbiltzeko pauso handiak eman ditu azken urteotan, bere lotura historikoa gogoraraziz eta badiara ere hurbilduz. Atlantikaldia ere hor dago. Askotan irudi bat dugu kostaldearena oso aisialdiari lotua, hondartzari eta abar. Baina kosta inguruan beste hainbat lan eta funtzio zeuden, eta noski, Errenteriak berea egiten zuen. Eta bai, niretzat baliagarria izan da letra pentsatzerakoan.

### **Kilometroak 23 eta datozen Kilometro guztiek, anitzagoak behar lukete eta etorri berrien integrazioa islatu euren programazioan?**

Horretan esango nukeena da, nire iritzi, estrategikoki euskarak lehen lerroan egon beharko lukeela integrazio politika guztietan. Inklusiorako aterik efektiboenetakoa dela esango nuke, komunitate kultural baterako sarrera nagusia. Eta etorkinen harreran funtsezkoa da euskaldunok lehen lerroan egotea, besoak zabalik, hiztun berriak lortzen eta gure identitatea aberasten. ●





## Zein testuinguruan egin ziren Kilo- metroak 84? Zein zen ikastolaren helburua?

Kilometroak diru premiak sortu zuen, hasiera 1977an Beasain-Lazkaon izan zuelarik. Finantzaketa-iturri bezala, diru laguntzak murriztak zirelako. 1984ko 8. edizioa Orereta Ikastolak, nagusiki, helburu ekonomikoarekin egin zuen. Logoak hala zion: *Noiz arte honela?*, aldarrikapen modura.

Orereta Ikastola 1963an sortu zen. 1973an, Añabitarte baserria erosi zuen, bere 95.000 metro koadroko eremuarekin, 1974-75 ikasturtean klaseak ematen hasiz. Bazkideek euren poltsikoak xahutu beharra izan zuten, erakundeen laguntzarik gabeko inbertsio eta mailegu handitan sartuz. Urte batzuk geroago, ikasleek batxilergoa egin zezaten, BBBko eraikina eraiki zuen (egungo DBHkoa) eta 1980-81 ikasturtean klaseak ematen hasi. Mailegu handi horiek gero ordaindu egin behar ziren. Ekitaldian lortutako emaitza ekonomikoa oso ona izan zenez, karga arintzeko lagungarri izan zen.

### Lana nola egiten zen? Zein izan zen antolaketa? Zu zein kargutan egon zinen?

Gida Batzordean nenbilen eta eskualdeko ordezkari bezala, Gipuzkoako Ikastolen Elkartean (GIE) Talde Bateragileko partaide izan nintzen garai hartan. Kilo-  
metroak non egin GIE-n erabakitzen zen. 1982koan Hernanin (nire jaioterrian) izan ondoren, Kilo-  
metroak orduan bizi nintzen herrira eramatea [Errenteriarra], ia obsesio bihurtu zen niretzat eta ez nuen etsi hori lortu arte. 1983rako eskaera egin zen, baina ordukoa Donostiara joan zen. Baina, 1984. urterako bidea errazteko balio izan zuen. Horrela, 1983ko abenduaren 22an GIEn erabaki zen 1984koa Oreretak antolatzeko. Errenterian, lehenengo aldiz, historiako 8. edizioa. Hura poza!

Mikel Erriondo izendatu zuten koordinatzaile orokora. Bere agindupean, hamar batzordeko lantaldea osatu zen. Nireu Zirkuitu Batzordeko arduradun izendatu ninduten.



# JULIAN ALBISTUR KILOMETROAK 84 KANTUAREN LETRAGILEA

### Nola heldu zitzaizun abestiaren letra idazteko enkargua? Lehenengo letra edo musika izan zen?

Nire lehen bertso-sorta, *Kilometroak 84*, ez zen enkarguz egin izan, lehiaketa baterako baizik. 1984an, Xenpelar Saria bertso-paper lehiaketa Xenpelar Etxeak antolatu zuen, Euskaltzaindiaren ardurapean. Prestigio handiko lehiaketa zen, eta bertso-jartzaile onenek parte hartzen zuten. Hain justu, 1984koa azken

edizioa izan zen. 12 bertso sorka, 8ko txikian, ahal nuen modurik onenean, ilusio handiz egin eta lehiaketara aurkeztu nuen. 1984ko udaberria zen. Guztira 114 bertso-sorta jaso zituzten, 77 egilek aurkeztuak. Ez nuen saririk jaso, baina *El Diario Vasco* egunkarian nire sorta argitaratu zuten. Inoiz ez dut jakin nola iritsi ziren bertso horiek hara. Marketin taldekoak hortaz ohartu, eta sorta egokia irudituta abestia egitea proposatu zioten Donato Larrañaga musikariari. Donatok, berak aukeratutako 4 bertso sorka jarritz, abestia sortu zuen, Orereta Ikastolako ikasleekin kantatzeko. Letra pittin bat aldatu zuen musikara egokitzeko, baina... Ondo funtzionatu zuen. Niri ezer esan gabe egin zuten dena.

### Nola eta zein modutara heldu zein letrari? Nolako kritikak izan zituen?

Kilometroen historia aipatuz, diru premia azalduz, ibilbidea deskribatuz, xehetasun batzuk emanez,

eguraldiaren kezka agertuz, jendea animatuz... Horrela osatu nuen bertso-sorta. 1984koa lehenengo abestia izan zela esango nuke. Aitor semeak, adibidez, orduan 8 urterekin, buruz ikasi zuen 4 bertsoz osatutako abestia, beste ikasle batzuk bezala.

### Nola ikusten duzu 2023ko Kilo- metroak? Saltsa sumatzen duzu zure ondoan?

2023koa egungo guraso, ikasle eta irakasleena izango da, herritarren laguntzarekin. Hirugarrenez herrian ikustea pozgarria izango da niretzat. Baina, *nire*a 1984koa izan zen.

Berrikuntza datorrenez, uste dut aurren ere herri honek maila emango duela. Ordukoa hobetzea ederra izango litzateke, hura arrakastatsua izan zelako. Planteatzeko eran asmatzen bada, talentua soberan dagoenez, herriak erantzungo duelakoan nago. Herri bizia. Auzolana. 60 urte igaro ondoren, Orereta Ikastolaren etorkizuna dago jokoan. Kontuz! Gurasoak aktibatzea espiritua errekuperatuz, garrantzitsua izango da nire ustez. ●





# ANTTON KAZABON

## 99 KILOMETROAKEN LETRAGILEA

### **Zein testuingurutan egin zen Kilometroak 99 Erretereria-Oreteran? Zein zen ikastolaren helburua?**

Orain dela hogei urtetik hona, ez dut uste, oro har, deus asko aldatu denik, zorritzarez, ikastolen egoera. Batik bat egoera ekonomikoaz ari naiz. Beti ezinean, ratioak gora, ratioak behera, eraikin egokien eskasia, ikasturtea amaitzeko komerietan, eta irakasle nahiz gurasoen artean atera behar aurrera zenbait ikasgela. Kilometroak antolatzearen lehen helburua, beraz, ekonomikoa, dirua ateratzea da.

Penagarria, baina oraindik ere herritarren militantzia behar dugu, gure hizkuntza eta hezkuntza propioek aurrera egingo badute. Administrazioaren diru iturriak emari eskasa dakarren seinale.

Euskararen aldeko aldarrikapena ere hor dago, jakina. Eta funtzio hori ere betetzen zuen festa erraldoi honek. Oraindik ere badu eginkizun hori. Izan ere, euskararen ezagutza maila gorantz joango da, baina erabilerak nabarmen egin du behera. Nire ustez, garai bateko kontzientzia hura, pikutara joan da gizartearen arlo eta eremu askotan. Badakit oso iritzi ezkorra dela, baina horixe da nik pentsatzen dudana. Eta etsaia ere ohartu

da horretaz. Ikusi besterik ez dago oraindik ere zer nolako diskriminazio hotsak entzun behar ditugun, lanpostu publikotarako euskara eskatzeagatik.

Nork esan du gure herria elebiduna dela, gure egoera diglosikoa inoiz baino nabarmenagoa denean? Nork esan du gure herria elebiduna dela, hezkuntza sisteman espainiera derrigorrezkoa denean, eta euskara hautazkoa? A eredia, B eredia, D eredia... Noiz arte broma honekin?

### **Ardura handiko lana izan al zen kantua idazteko enkargua? Nork jarri zion musika?**

Inguruko hainbat sortzailek jaso genuen enkargua, eta horrela ekin genion lanari. Ni oiartzuarra izanik, hasieran nahiko deseroso sentitu nintzen eskaera egin zidatenean, pentsatzen bainuen, Oreterta Ikastolarentzat izanik, erreteriarren batek egitea egokiagoa izan zitekeela. Baina berehala kendu nuen konplexu hori burutik, eta pozik heldu nion enkarguari. Izan ere, nahiz eta oiartzuarra izan, denbora luzea neraman Erretertiako hainbat elkartetan lanean burubelarri.

Abestiaren enkargua jaso nuenerako, musika egina zegoen. Golden Apple

Quartetek prest zeukan melodia. Beraz, nire lana nahiko mugatua zegoen. Ez neukan askatasun handirik kantuaren egitura eta metrika aldetik. Hori erabakia zegoen aurrez. Niri lerro kopurua pasatu zidaten, eta lerro bakoitzean zenbat silaba zihoazen. Eta horrek asko zaildu eta mugatu zuen nire lana.

### **Zer azaldu nahi zenuen letrarekin?**

Gauzak horrela, halere, ilusio handiz heldu nion lanari. *Bizi* zen orduko Kilometroak-en leloa. Argi zegoen nondik jo behar nuen. *Bizi da, bizi gara; bizi gara, bizi da.* Aspaldi ikasia nuen euskararik gabe ez dagoela Euskal Herririk, eta Euskal Herririk gabe ez dagoela euskararik.

Lehenengo zatian, Oarsoaldeko haurrak jarri nituen martxan eta hizketan ttiki-ttaka, bilin-balanka, bar-bar, txor-txorka. Bigarren zatian gazteak; eta hirugarrenean zaharrenak tin-tinko tente, punpa-palaplau.

Beti izan nahiz hitz joko, errima, aliterazio, elipsi, ironia eta onomatopeia zalea, eta bide hori hartu nuen. Kantu jostalaria egin nahi nuen.

Nirea aukeratu zutela esan zidatenean beste bertsio bat ere eskatu zidaten, itxura *ganberroagoa* zuena eta dantzarako izan behar zuena. Hori askoz ere errazagoa egin zitzaidan.

Hainbat ekitalditan ere parte hartu nuen. Esaterako, udal kiroldegian ekainaren 12an egin zen bertso jaialdi erraldoian gaiak jartzen izan nintzen. Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Jexux Mari Irazu, Anjel Mari Peñagarikano, Joxe Agirre eta Jon Sarasua jarri nituen lanean. A zer sei Miura nobillero batentzat!

### **Nola hartu zuen komunitateak kantua?**

Antolatzaileentzat egokia izan zen, eta Golden Apple Quarteteko abeslariak ere gustura sumatu nituen, abestiaren aurkezpen egunean.

Niessen Kulturgunean izan zen kantaren aurkezpen ofiziala, maiatzaren 27an. Benetan ederra, lau abeslariak eta Oreterta Ikastolako ikasleek elkarrekin eskaini ziguten ikuskizuna. Nire ustez abestiak funtzionatzen zuen eta funtzionatu zuen. Jendearengana heldu zela pentsatzen dut, eta hori zen garrantzitsuena. ●



# Erriola hitzorduak



ekainak **3**

Añabitarre

**Ikastola Eguna**

ekainak **4**

Kaputxinos auzoa

**Erriola konpartsa**

ekainak **17**

**Sorgingarra**

uztailak

**19**

**Urmuga** ▶ Añabitarre

uztailak

**21-25**

**Erriola Gunea**

▶ Esmalteria

irailak

**14-17**

**Erriolartea** ▶ Xenpelar etxea

irailak

**21**

urriak

**5**

**Euskahalduntze tailerrak** ▶ Esmalteria

irailak

**23**

**Ikasle ohien bazkaria** ▶ Añabitarre

urriak

**1**

**erriola kilometroak 23**

**orere ta ikastola**  
AURRERA!

Bide zuzen, baina irekia da Kilometroak 23, gizarte eragile guztion artean osatzea da asmoa, eta, bidean, gehitu daitezke ekitaldi gehiago ere. Informazio eguneratua [kilometroak.eus](http://kilometroak.eus) helbidean.

**Euskararen erria**

**Tonbola**

